

BEGI NINI ÑIMIÑOA

Zulo txiki ñimiño bat
hori da begi ninia
Euskal Herria barrutik
ikusteko ipinia.

Herri txiki ñimiño bat
hori da Euskal Herria
mundua bere barrutik
konprentzeko jarria.

Globo txiki ñimiño bat
hori da mundu urdina
unibertsoa barrutik
ententzeko egina.

Herri txikien mundua
mundu txikien multzoa.
Begi nini ñimiño bat
hori da unibertsoa.

TRIKITIXAREN SUA

Trikitixaren sua
handia da baina
aspaldi somatzen dut
dudazko usatna
eztabaidatu baina
ez inor engaina.

Txapelketa bat bazan
behin antolatua
nola egin jakin ez
hori zen kontua
batzuenengan sortua
zer desenkantua.

Sortu zen modernoa
ta tradizionala
trikitixarentzako
abio ona da
inork ulertzen badu
esplika dezala.

Behar genuke mahai bat
edo zerbañ bildu
zer garen eta nola
nahi dugun azaldu
sua piztu denez
ez bedi itzaldu.

ABYA-YALA

Txerokee eta Txeyene
irrintzi eta aiene
zapaldutako loreak
berriro lurrean erne.

Aimara eta Quetxua
zabalduz doa kexua
geroa zaila da baina
iragana jakintsua.

Maia eta Yanomami
munduak dena du mami
izakien biznahlia
ama lurraen legami.

Gogoa amets egin zen
indioa izan nintzen.
Halekin ikasi nuen
Amerika deskubritzen
halekin ikasi nuen
Euskal Herrian bizitzen.

TIRIPTAIRA

Tiripi tipi taira
kriskitin kraskitin
ezin nauk goldi egon
musika honekin
dantza egin nahi al duk
Bartolo nerekin?

Tiripi tripalari
kikilli kokolo
gorputz honek badizkin
ehunda zazpi kilo.
Ni dantzan hastien banaun
auskalo, auskalo!

Titiriki itarra tiarra
txintxirrin txintxirri
dantza gaitzen biok
salto eta irri
begirada goxoak
eginez elkarri.

Arroxa koloreko
Erroxa litaina,
oraintxe piztu zaidan
dantzarako grina.
Goazen egingo dinagu
heuk nahi dunan aina.

AI HAU GAUAREN ZORAGARRIA

Ai hau gauaren
zoragarría
Jesus jaio da Belenen
eta guztioek bila gabiltza
etxe hometan ote den

Kalean haize hotza
mendian elurra
soineko txuri garbiz
jantzi zaigu lurra
etxalde epelecan
behia ta astoa
eta bien erdian
haur eder askoa.

Intzentsu, mirra, urrez
hiru errege irrifurrez
Belena datoz gustora
haurraen ondora,
ta Olentzero begi gorri
ume guztien alaiagarri
ehun da hogei kilo justuz
zagia hustuz.

Herria somatzen da
tximini usatna
ta gu jantzu gera
boskote bikaina
ejenplu ona ematen
gabiltz alajaina
kristautikan batere
ez daukagu baina.

Beraz orain guztioak
nahi zaituztegu ase
eta naximentua
izango da hauxe
Ni naiz Ama Birjina
ta hau da San Jose
gure artetik agian
sortuko da zeoze.

TXAPELAU

Amatxok erosi dit
txapela gorria
baina ni ezin izan
zipato berria
utikan txapela gorria
denean izan nahi dut
ongi etorria.

Amatxok erosi dit
txapela berdea
ni beti pazifista
izan naiz ordea
ai, oi, ei, txapela berdea
ni beti pazifista
izan naiz ordea
fusila badut baina
ederki gordea.

Amatxok erosi dit
txapela baskoa
kilometroetako
dotore askoa
utikan txapela baskoa
badaukat nortasuna
baina berezkoa.

Udaran eguzkia
elurra neguan
ixura gabe nahi dut
ibili munduan
ai, oi, ei, ibili munduan
udaran eguzkia
elurra neguan
txapelik ederrera
hatzea buruan.

OI EZ

Beti nabil ni berdintsu
beti
zu ikusi nahiez

Oi ez, sentidurikan ba al du?
Oi ez, burua dut galdu

Aldamenetik begira
beti
egoten naiz ni

Nerekin nahi zintuzket
beti
egun da gauzez.

Arazorik ere bada
beti
nahiz ta guk nahi ez.

AMWAY

Illeppaa, zer moduz!!!

Aizak hi zer habil
kontaidak, zozzer altuot
esan didate Amwayko sektan hauela
saltzaille sutsu bat hatzela
nahi ta ez nahiean

Aizak hi zer habil...
Jendea engainatzen dukela
beste batzuen hitzekin
ez hai izan hioen esklabululul
(ez zak, ez zak, ez zak saldu)

Aizak hi
diruaz nahi duk zoriona erosi
horrek ez dik merezi
multinazionalen azken inbento hori
(beti arrantzan ein bier, ein!
kea kiifé, iteeveezak saldu)

Saltzen, saltzen

LURRAREN SEME

Lurraren seme nintzen haseran
gero lurraren biloba
lurraren lagun bihurtu nintzen
eta pasa zen denbora
lurraren jabe egin ninduten
lurraren maizter gerora
biti ezinak gonbidatu nau
nire lurretik kanpora
hego-hatzeak gorantza nakar
ipar-hatzeak hegora.

Miseriaren hego-hatzeak
bihurtu nau ibiltari
zakurrak parre, jendeak zaunka
egiten dio paisari
maizter ere nahi ez nautelarik
gutxiago bisitari
barrena pixkat goxatu nahian
gure doinuuen kantari
gogoratzen dut behinola ama
deitu niola lurrari.

Mila pezetan zilarra eta
mila duroan urrea
bostehun pezetan erlojuia ta
hogei duroan korrea
saltzeko daukat atzea eta
saltzeko daukat aurrea
erosiz gero debalde dira
iseka eta parrea.